

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

190. zenbakia

Data 2003-10-07

17744 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Ikasleak zahar autonomoekin etxe berean bizitzeko elkarbizitzaren araudiaren erregelamendua. Behin betiko onspena.

DONOSTIAKO UDALA

Gizarte Ongizateko Administrazio Bulegoa

Behin betiko onartzea ikasleak eta berez baliatzen diren adinekoak hauen etxeetan elkarrekin bizitzeko Programaren Udal Arautegia.

Donostiako Udalbatzak 2003ko irailaren 16ko osoko bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Ikasleak eta berez baliatzen diren adinekoak hauen etxeetan elkarrekin bizitzeko Programaren Udal Arautegia.

Erabakia behin betiko da, eta buru ematen dio administrazio bideari. Honekin ados egon ezean, hilabete dago birjarpeneko errekurtsioa jartzeko Udalbatzarraren aurrean, edo, bestela, zuzenean Bilbora jota, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailean, bi hilabete baino lehen.

Esandako epeak iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira.

Apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arauzkotezko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, aipatu Araudiak argitara ematera goaz.

Donostia, 2003ko irailaren 23a.—Edorta Azpiazu Laboa, Gizarte Ongizateko Zuzendaria.

(11389) (10146)

IKASLEAK ETA ADINEKOAK ELKARREKIN BIZITZEKO PROGRAMA ARAUTZEKO UDAL ARAUTEGIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuen Sistema publikoak, bere erantzukizunean artean, erantzun egokia eman behar dio familiek edo banakoek duten elkarbizitza pertsonaleko beharrari, ostatu, arropa, elikadura, zaintza, afektu eta abarri buruzko funtsezko beharrak betetzeari dagokionez. Gizarte Zerbitzuek Ostatu eta Elkarbizitzako Oinarrizko Zerbitzuaren bitartez erantzuten diote behar horri.

Hala, arautegi honen bidez, ikasleak eta adineko autonomiadunak elkarrekin bizitzeko programa arautu nahi da, baita pertsona horiek programan txertatzeko bete behar dituzten baldintzak ere.

Gizarte zerbitzuen eginkizunak zehazteari buruzko 155/2001 Dekretua bat dator EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordeak eta Gizartekintzak (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuko departamentuak) 2000ko abenduaren 18an lortutako Lankidetzaren Hitzarmenarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuaren, Gizarte Zerbitzuetako hiru Foru Ahaldunen eta EUDELeko presidentearen arteko akordioarekin.

Akordio horiek eragin dute orain artean Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek Gizarte Zerbitzuak emateko erabiltzen zuten lankidetzaren sistema nabarmen aldatzea; hala, sistema berriak lehenengoak baino hobeto zehaztuko du Administrazio bakoitzari dagozkion eginkizunak zein diren. Horrek, halaber, harreman esparru berri bat sortzea eragingo du, Gipuzkoako Foru Aldundien eta Lurralde Historikoko udalen artean. Hona horren ezaugarri nagusiak:

—60 urtez gorako pertsonen kasuan, Foru Aldundiek izango dute mendeko gisa sailkatutako pertsonen arreta eta zaintzaren ardura.

—Mendeko gisa sailkatuta ez dauden 60 urtez gorako pertsonen kasuan, udalek izango dute haiekiko arreta eta zaintzaren ardura.

—Mendekotasunaren balioespena: Foru Aldundi bakoitzeko organo eskudunak balioetsiko du dagozkion gizarte baliabidea eskatzen duen pertsonaren (adinekoa edo minusbaliatua) autonomia maila, horretarako onetsitako tresna teknikoak aplikatuz.

—Udalen esku uzten da mendekoak ez diren pertsonen ostatu emateko eredu alternatiboak eskaintzearen ardura.

Beraz, Donostiako Udaleko gizarte zerbitzuek, beren erantzukizuna betetz eta urriaren 18ko Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen 7.3. artikulua araberaren arabera, zeregin hau bete behar du, beste batzuen artean:

Elkarbizitza zerbitzu edo programak eskaintzea, interesatutako pertsonen etxean laguntza jarduerak burutuz. Programa edo zerbitzu horien helburuak pertsona horiek beren ingurunean jarraitzea ahalbidetzea izan behar du, bai bizitza autonomoa garatzeko aukerak murrizten dizkieten gabezia edo urritasunak arinduz, bai famili elkarbizitzako baldintzak hobetuz. Betebehar hori aurrera eramateko, hiru modalitate daude: Etxeko laguntza zerbitzua, telelaguntza zerbitzua eta elkarbizitza modu alternatiboak.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.Xedea.

Dokumentu honen xedea Donostiako udalean ikasleak eta adineko autonomiadunak elkarrekin bizitzeko programa arautzea da.

2. artikulua.Aplikazio esparrua.

Ikasleak eta adineko autonomiadunak elkarrekin bizitzeko programa Donostiako udalean garatuko da, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskuduntzen esparruan.

I. TITULUA

DONOSTIAKO UDALEAN IKASLEAK ETA ADINEKO AUTONOMIADUNAK ELKARREKIN BIZITZEKO PROGRAMA

I. KAPITULUA.PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

3. artikulua.Programaren edukia.

3.1.Elkarbizitza programa, funtsean, bakarrik edo adineko beste pertsona batekin bizi diren adinekoentzako programa da. Programa hori bestelako zerbitzu edo programekin batera eskain daiteke, eta adinekoak txandaka edo aldi berean jaso ditzake zerbitzu horiek. Programa honen helburua adinekoek etxean ahalik eta denbora gehienez eta ahalik eta baldintzarik egokienetan jarraitzea da.

3.2.Programaren osagaiak:

1.Adinekoak ikasleari ikasturtean lojamendua eskaintzea.

2.Ikasleak adinekoari konpainia eta laguntza eskaintzea ekintza instrumentalak gauzatzen: Medikuarenera joatea, gestio txikiak, gaixoardietan eta ospitale aldietan laguntzea eta abar.

3.Halaber, adinekoak ikasleari ikasteko gastuak arintzeko dirulaguntza ematea.

3.3.Programa hau garatzeko, Donostiako Udalak eta unibertitate eta hezkuntza ikastegiei lankidetzak akordioak izenpetu beharko dituzte. Akordio horietan Donostian bizi diren adineko autonomiadunentzako eta matrikulatutako ikasleentzako programa hau zein baldintzatan garatuko den adostuko da.

4. artikulua.Helburuak.

Programa honek helburu hauek ditu:

a)Adinekoei ohiko ingurunean ahalik eta denbora gehienez eta ahalik eta baldintzarik egokienetan jarraitzeko erraztasunak jartzea, autonomia galera prebenitzeko eta/edo arintzeko beharrezkoak diren laguntza zehatzak bermatuz.

b)Adinekoa komunitatean bizitzea. Horretarako, hura gizarte sare batean txertatzea sustatuko da; horrek, batetik, kalitatezko harremanak jarriko ditu haren eskura, hau da, laguntza (emoziozkoa, informazio mailakoa eta instrumentala), eta, bestetik, bere nortasuna finkatzeko aukera emango dio, harekiko begirunezko arreta pertsonalizatuaren bitartez.

c)Egun dagoen zerbitzu eskaintza handitzea, komunitate mailako aukera integratzaile eta normalizatuak eskainiz, gizarteak dituen behar eta eskariei familiakoaren antzeko elkarbizitza esparru batetik erantzuteko. Programak jarriko dira abian autonomiadunen

bizi kalitatea hobetzeko, eta emango diren zerbitzuek bizitokiaren logikari helduko diote, hartara pertsonen nahi eta beharrei modu egokian erantzun ahal izateko.

d)Bi belaunaldien arteko elkartasunezko eta elkarrekiko laguntzako harremanak sustatu eta erraztea.

e)Beste zerbitzu batzuek esku hartzea eska lezaketen premiazko egoerak antzematea.

2. KAPITULUA.ERABILTZAILEEI DAGOKIENA

5. artikulua.*Erabiltzaileak zein diren zehaztea.*

Erabiltzaileak dira programan parte hartzen duten eta programa erabiltzen duten pertsonak. Beraz, programan parte hartzen duten adinekoak eta ikasleak dira programa horren erabiltzaileak.

6. artikulua.*Erabiltzaileen betebeharrak zehaztea.*

6.1.Adinekoaren betebeharrak:

—Eskaera egiten den unean 60 urte beteta izatea. Irizpide horrekiko salbuespenak ezarri ahal izango dira, baldin eta programan parte hartu beharra eta eskatzailearen egoera pertsonala ongi dokumentatu eta ziurtatzen badira, dagokion txosten teknikoak nahikoa justifikatuta.

—Donostian erroldatuta egotea.

—«Adineko autonomiadun»tzat hartua izatea, Gizartekintzak kasu bakoitzean ebatzitako balioespen eskalaren arabera.

—Ez izatea osasun zentroetan etengabeko laguntza jasotzea edo osasun publikoko neurriak hartzea eskatzen duen osasun egoeran.

—Elkarbizitzari kalte larriak eragin liezazkioken portaera desorekarik ez jasatea.

—Bakarrik edo beste adineko batekin bizitzea.

—Hartu nahi den ikaslearekin ahaidetasunik ez izatea, ez odolekorik, laugarren mailara bitartean, ez ezkontzakorik, bigarren mailara bitartean.

—Ohiko etxebizitzaren jabe izatea, edozein tituluz, prekarioa izan ezik. Etxe horrek ongi egokitua behar du eman nahi zaion erabilerarako, eta ikaslearentzako banako gela bat izango du, hura erosotasunez hartu ahal izateko adina tokirekin. Etxebizitza errentan hartua bada, adinekoak jabeak izenpetutako dokumentua aurkeztu behar du, ikaslea bertan egoteko baimena agertzen duela.

6.2.Ikaslearen betebeharrak:

—18 urte beteta izatea.

—Dagokion ikasturterako matrikulatuta egotea, Donostiako unibertsitate edo hezkuntza ikastegiren batean.

—Gaixotasun infekto-kutsakorrik eta elkarbizitzari kalterik eragin liezaiokeen desorekarik ez jasatea.

7. artikulua.Eskubideak.

Adinekoak eta ikasleak akordio bat izenpetu behar dute ezinbestean ostatua gauzatu ahal izateko. Akordio horretan adostuko diren eskubideak ez ezik, adinekoak eta ikasleak honako eskubide hauek izango dituzte:

7.1.Adinekoaren eskubideak:

Eskubide hauek ikaslearen aukeren arabera beteko dira, ikasteko eta klase ordutegiak eta horiek egonaldian nola eragiten duten aintzat hartuta. Berezi azterketa, praktika, jaiegun eta zubiek eragindako ez agertzeak egoera bereziak izango dira, horretarako betiere eskola egutegia kontuan izanik.

Programa honetan parte hartzen duen pertsonak eskubide hauek izango ditu:

—Gauetan zehar konpainia izatea.

—Gutxienez eskola egunetako bi otorduetatik batean konpainia izatea.

—Behar eta/edo larrialdi egoeretan lagundua izatea.

—Ostatu akordioan adostutako ordainak jasotzea.

7.2.Ikaslearen eskubideak:

Aurrez aipatutako salbuespenak aintzat hartuta, ikasleak eskubide hauek ditu:

—Doako ostatua izatea banako gelan.

—Etxeko gela eta ekipamendu komunetara sartzeko aukera.

—Giltzak edukitzea.

—Intimitate eskubidea.

—Ikasteko eta klase ordutegietan zehar trabarik ez izatea.

—Etxean egotea, adinekoa denbora tarte laburretarako etxetik irteten denean.

—Dagokion dirulaguntza ekonomikoa jasotzea.

8. artikulua.Betebeharrak.

Lojamendua gauzatu ahal izateko nahitaez bi aldeok izenpetzen duten akordioaren arabera, adinekoak zein ikasleak honako eginbehar hauek izango dituzte:

8.1. Adineko erabiltzaileen betebeharrak:

1. Ikasleari doan banako logela bat uztea.
2. Ikasleari etxebizitzako gela eta ekipamendu orokorrak erabiltzen uztea.
3. Lojamenduan hartutako ikasleari etxebizitzako giltzak uztea.
4. Etxeko gastu arruntak ordaintzea.
5. Ikaslearen intimitatea errespetatzea eta haren eskola eta ikasketa ordutegiak zein azterketa egunak ez oztopatzea, ikaslea gogaitaraz dezakeen edozer alde batera utzita.
6. Ikasturtean etxebizitzatik kanpo tarte laburretan egonez gero, ikasleari etxea erabiltzen irautea baimenduko dio, honako akordio honetako baldintzak oinarri.
7. Elkarrekiko laguntza programan parte hartu eta etxean ikasleak hartzen dituzten pertsonentzako elkarraldi edo gaitze jardunaldietan parte hartzea.
8. Arrisku askotarako etxeko aseguruia izatea.

Gainera, adinekoak honako hauek ere bete beharko ditu:

—Gizarte langilearen eskura hark beren egoera sozio-ekonomikoa balioesteko behar dituen dokumentuak jartzea.

—Eskatzailearen egoera sozio-ekonomikoa aldatzen bada, hark lehenbailehen emango dio udal teknikariari aldaketa horren berri.

—Eskatzailearen baldintza pertsonalak aldatzen badira, eta aldaketa horiek kontratuaren edozein alderditan eragiten badute, eskatzaileak lehenbailehen emango die udal teknikariei aldaketa horien berri.

—Erabiltzaileek udal teknikariei jakinaraziko diete laguntza ekonomikoaren ordainketa zein bankutan eta kontu korrante zenbakitan egingo den.

—Orobat, etxebizitza mantentzeko gastu orokorrak eta ezarritako laguntza ekonomikoa ordaindu beharko ditu.

—Gizartekintzari mendetasunaren balioespina egin dezan eskatzea, aurrez eskatu ez bada Gizarte zerbitzuek programa honen erabiltzaileentzat antolatuko dituen prestakuntza ikastaro eta ebaluazio saioetan azaltzea.

8.2. Ikaslearen betebeharrak:

1. Harreman onak izatea adinekoarekin eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin, halakoei programa gauzatzekoan gertatzen direnen berri emanda.

2.Adinekoa gaixorik egon edo gorabeheraren bat izatekotan: Berberak laguntzea, adinekoaren senideekin harremanetan jartzea, medikuari deitzea, oheratzen eta jaikitzen laguntzea eta abar.

3.Adinekoak behar izanez gero, gestioetan, eginkizunetan, osteratxoetan eta abarretan laguntzea.

4.Etxebizitzako ekipamendua eta denok erabiltzeko gelak behar bezala erabili eta zaintzea.

5.Etxeko lan komun eta partitu arinak egiten laguntzea: Etxeko gela komunak txukuntzea eta artatzea, erostea eta abar.

6.Logela eta erabiltzen dituen gune eta elementu guztiak garbitzea eta behar bezala zaintzea.

7.Ikastegunetan etxean lo egitea, gutxienez 5 gautan asteko.

8.Ikastegunetan nahitaez egunero otorduetako bat adinekoarekin egitea. Halere, bi aldeok konforme egonez gero, beharkizun hori hala bete behar ez izateko bidea izan liteke biok elkar hartuta erabakiz gero ez zehazteak ez duela elkarrekin bizitzeko arazorik.

9.Adinekoaren bizimodua, ordutegiak eta intimitatea errespetatzea.

10.Gauean adinekoaren atsedena galaraz dezakeen ezer ez egitea: Zaratak, bisitaldiak, bilkurak eta abar.

11.Elkarrekiko laguntza programan parte hartu eta adinekoren baten etxean lojaturik bizi diren pertsonentzako elkarraldi edo gaitze jardunaldietan parte hartzea.

12.Ikasleak akordio erregulatzailerak izenpetzerakoan bere gain hartzen dituen bestelako konpromisoak betetzea.

Betebehar horietako bat ez betetzeak programa iraungitzea eragin dezake.

3. KAPITULUA. SARTZEKO PROZEDURARI DAGOKIONA

1. ATALA.Eskatzaile zerrendetan sartzeari dagokiona

9. artikulua.Eskatzailea zein den zehaztea.

Balioetsia eta bideratua izan ondoren programa honetan parte hartzea eskatzen duen adinekoa da eskatzailea.

10. artikulua.Programaren eskatzaileen zerrendak.

10.1.Programaren eskatzaileen zerrendaren bitartez, ikaslea esleitzeko lehentasun ordena ezartzen da, I. eranskinean ezarritako sarrera baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera.

10.2. Programan zuzenean sartzeari ez diren eskatzaileek txostena berraztertzeke eskaera egin dezakete, baldin eta beren egoera pertsonaletan gertatutako aldaketek egindako balioespena alda badezakete; horretarako, ezinbestekoa izango da aldaketa horiek ongi egiaztatzea.

10.3. Programaren eskatzaileen zerrendan egongo dira programan sartzeko egokiak izaki onartuak izanagatik ere, ikaslerik esleitu ez zaien pertsonak. Hori gerta daiteke ebazpenaren egunean eskaerarik ez dagoelako edo dauden ikasleak eskaerarekin bat ez datozelako.

10.4. Programaren eskatzaileen zerrenda publikoa da, alor horretan aplikatu beharra dagoen araudiaren ondorio diren mugei utzi gabe, bereziki pertsonen intimitate eskubideari dagokionez. Legezko interesa ziurtatzen duten pertsonen zerrenda horren edukari lotutako ziurtagiriak igorriko zaizkie, haiek horretarako eskaera egin ondoren.

10.5. Eskatzailearen mendekotasunaren balioespena alda daiteke, Gizartekintzak erabilitako eskalaren arabera, eta horrek eragin dezake pertsona hori mendekotzat hartzea. Kasu horretan, Donostiako Udalak eskubidea izango du, ofizioz eta Alkatearen ebazpena betez, eskatzaileari eskatzaile zerrendan baja emateko. Pertsona hori, baina, berriz ere zerrendan txerta daiteke, beste balioespen baten ondoren berriz ere autonomotzat jotzen bada.

11. artikulua. Programaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaera eta ikasleen eskaera.

11.1. Programaren eskatzaile zerrendan sartzeko, eskatzaileak Donostiako alkateari zuzendutako eskaera inprimaki normalizatua bete eta izenpetuko du. Ondoren, eskaera hori aurkeztuko du, udalak horretarako jarri dituen sarrera erregistroetako batean, estatuko administrazio nagusiko, autonomia erkidegoen administrazioko eta, horretarako hitzarmenik izanez gero, tokiko administrazioa osatzen duten erakundeetako edozein organo administratibotako erregistroetan, postetxeetan edo Espainiak atzerrian dituen ordezkari diplomatiko edo kontsuletxeetan.

11.2. Aldi berean, eskatzaileak oraindik mendekotasun balioespena bideratu ez badu, horretarako eskaera egingo du, inprimakia betez eta Aldundiko Gizartekintzako ahalguztari igorritik.

11.3. Prozesuaren edozein unetan, eskatzaileak bertan behera utzi dezake eskaera, idatzi bat eginaz. Horrek txostena arxivatzea eragingo du.

11.4. Programan interesatutako ikasleek eskaera egingo dute dagokien hezkuntza ikastegian xede horretarako jarritako bulegoetan, exijitutako dokumentazioarekin batera inprimaki normalizatua aurkeztuz.

11.5. Eskaera guztiak Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako hirugarren adinekoen atalera igorriko dira. Bertan horiek bildu eta erregistratuko dira, eta ondoren banan-banan aztertuko dira.

12. artikulua. Eskatzaileek eskaerarekin batera aurkeztuko duten dokumentazioa.

12.1. Eskaerak honako dokumentu hauekin batera aurkeztuko dira:

- NAN agiriaren edo balio bereko edozein dokumenturen fotokopia.
- Gizartekintzako Balioespen Unitateak egindako balioespena.
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak.
- Ondasun higigarri eta higiezinaren zinpeko aitortzea.
- Pertsona Fisikoen errenta zergaren azken aitortzearen fotokopia. Bestela, aitortzea egitera derrigortuta ez dagoela bermatzen duen Ogasun Ziurtagiria.
- Ondasun higiezinaren eta jardueraren ekonomikoaren ziurtagiria.
- Ondasun higiezinaren etekinetatik datozen diru sarreren ziurtagiria.
- Pentsio eguneratuen ziurtagiria, pentsio horiek ematen dituen erakundeak igorritakoa.
- Aurrezki libreta, kontu korrante, bonu, akzio, epe finkorako aurrezki orri eta abarren posizio eguneratuen ziurtagiria, bankuak egina.
- Bankua eta kontu korrantearen zenbakia; hartara helbideratuko da hileko dirulaguntzaren ordainketa.
- Etxebizitza errentan hartua bada, adinekoak jabeak izenpetutako dokumentua aurkeztu behar du, ikaslea bertan egoteko baimena agertzen duela.
- Udaleko gizarte zerbitzuek interesgarritzat joko dituzten gainerako dokumentu guztiak.

12.2. Eskatzaileak bere egoera balioetsia izatea nahi ez bada, edo hura ongi justifikatu ezean, bere egoera ekonomikoa balioetsia izateari uko egiten diola ulertuko da, ezarritako laguntza ekonomikoa eta sartzeko lehentasuna zehazteari dagokionez. Beraz, dokumentu batean adieraziko du laguntza ekonomikoari uko egiten diola eta laguntza ekonomikoko 0 puntu onartzen duela, sartzeko baremoari dagokionez.

12.3. Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osorik aurkezten ez bada, edo hartan okerrak antzematen badira, eskatzaileari aginduko zaio ondorengo hamar egunetan falta diren dokumentuak aurkeztu edo antzemandako okerrak konpon ditzan; orobat, horrela egin ezean, eskaera bertan behera geldituko dela jakinaraziko zaio.

12.4. Eskatzaileak Udalarari baimenduko dio datuak egiaztatu edo biltzera bideratutako ekintza egokiak abian jar ditzan. Datu horiek mugatuko dira eskatzaileak arautegi honetan ezarritako betebeharrak betetzen dituela frogatzera eta, behar denean, programa finantzatzeko betebeharrak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzerako.

12.5. Eskatzaileak datu faltsuak ematen baditu edo datuak ezkututzen baditu, programa eskatzeko eskubidea galduko du, horretatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunei utzi gabe.

13. artikulua. Adinekoen eskaerak bideratzeko prozedura, eskatzaile eta ikasleen profilen azterketa eta elkarbizitza proposamena.

A) BALIOESPENA

Eskatzailearen bizilekuari dagokion Gizarte Zerbitzuen Zentroko Gizarte Laneko teknikariek egingo dituzte eskaeraren izapideak, balioespena eta ebazpen proposamena.

Teknikariek aurkeztutako dokumentazioa aztertuko dute, baita elkarrizketak, etxez etxeko bisitaldiak eta gestio egoki guztiak egin ere, programa honetan parte hartzen duten kolektiboak, ikasleak eta adinekoak, ahalik eta ongien ezagutzeko, eta horren bidez, bien arteko egokitzapena ahal den neurrian erraztu eta harrerak optimizatzeko. Horretarako honakoak hartuko dira kontuan:

A.1. Adinekoari dagokionez:

—Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko lagundu beharra. Eguneroko bizitzan moldatzeko ahalmena, eta autonomia, ingurunearen gaineko kontrola eta hautatzeko aukerak sustatzeko lagundu beharra. Alor honetan honakoak balioetsiko dira: Bai eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bai eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak.

—Ohiturak eta ohiko bizimodua. Eguneroko bizitzako trebetasunak.

—Elkarbizitzako eta gizarte laguntzako egoera. Gizarte harremanen ondorio diren baliabideak aztertzen dira, pertsonak bere beharrei erantzuteko zenbaterainoko laguntza duen jakiteko.

—Elkarbizitza mailako gizarte trebetasunak.

—Etxebizitzaren zein alderdik eragin dezaketen garapen autonomoko mailan, ingurunearen gaineko kontrolean, hautatzeko ahalmenean eta bertan laguntzeko aukeretan (irisgarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua). Ikaslearentzako gela berariaz balioetsiko da.

—Egoera ekonomikoa: Eskura dituen ondasunak eta horien balioa.

—Lehentasunezko hizkuntza eta egindako eskaeraren zergatia.

—Eskatutako ikaslearen profila.

A.2. Ikasleari dagokionez:

—Elkarbizitzarako motibazioa eta gogoia.

—Elkarbizitza mailako gizarte trebetasunak.

—Eguneroko bizitzako trebetasunak.

—Profil profesionala elkarrekiko laguntzako eta parte hartzeko jarduerak garatzeko bat datorren.

—Ohiturak eta ohiko bizimodua.

—Eskatutako adinekoaren profila.

—Horretarako aukerarik baduen.

—Osasun egoera fisiko eta psikikoa.

B)GIZARTE TXOSTENA-PROPOSAMENA

Gizarte Laneko zerbitzu teknikoek derrigorrezko gizarte txostena egingo dute; horretan, honakoak zehaztuko dira:

—Programan sartzeko eta eskaera aurkezteko baldintzak betetzen direla, edo eskaera alde batera uzteko arrazoiak.

—Eskatzailearen, eta, behar denean, harekin bizi diren pertsonen baldintza pertsonal, familiar eta sozialak.

—Onartzen zaion laguntza ekonomikoaren zenbatekoa.

—Horrela bada, programa zergatik ukatzen zaion adierazten duen proposamen arrazoitua.

14. artikulua.Ebazpena.

14.1.Behin eskaera aztertu eta balioetsi ondoren, proposamen-txostena Alkateari igorriko zaio, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako programan sartzeko eskaera onartu edo atzera botatzen duena.

14.2.Ebazpena gehienez bi hileko epean emango da, eskaera udal Erregistroetan sartzen den unetik aurrera. Epe hori luzatu ahal izango da, eskatzaileari eskaera zuzen dezan eskatzen zaionean, jakinarazpena bidaltzen zaionetik erantzun arteko denboran, eta, erantzunik ezean, emandako epea amaitu artean. Gainera, Gizartekintzari eskatzailearen autonomiaren balioespenari buruzko derrigorrezko txostena eskatu behar bazaio ere hasierako epea luzatuko da.

14.3.Aurreko atalean aurreikusitako epean ebazten ez bada eta ebazteko betebeharrari kalterik egin gabe, eskaera ez dela onartu ulertuko da. Hala, eskatzaileak aukera izango du hautazko berraztertzeke helegitea edo Administrazioarekiko auzi-helegitea jartzeko.

14.4.Ebazpen positiboak honakoak bilduko ditu:

—Eskaera itzarote zerrendan sartzea, programan parte hartu nahi duen ikaslerik ez dagoelako, edo, ikasleak egonagatik ere, adinekoarekin bizitzeko moduko inor ez dagoelako.

—Programan parte hartzeko onarpena eta baimena, eta, behar denean, ezarritako laguntza ekonomikoa.

14.5.Ebazpena ezezkoa bada, ukatzearen arrazoiak bildu behar ditu. Honako kasu hauetan izan daiteke ezezkoa:

—Eskatzaileak arautegi honetan bildu diren sarrera betebeharrak ez baditu betetzen.

—Eskatzaileak eskaera eragin duten beharrak egokiro bete baditzake, berak bakarrik eta/edo senideen laguntzarekin eta/edo bestelako baliabide propioekin.

—Eskaera beste administrazio publiko baten eskumenekoa bada, eskatzailearen bizitokiaren kokapenarengatik edo eskatzailea mendeko gisa sailkatua izan delako.

—Ongi justifikatutako bestelako kausak.

14.6.Ebazpena legeak agindutako epe eta betebeharrak errespetatuz jakinaraziko da, eta haren aurka, hautazko berraztertzeke helegitea jarri ahal izango da, Alkatearen aurrean. Bestela, zuzenean egin ahal izango da haren aurka, Administrazioaren eskumeneko auzi agintaritzan aurrean, legeak ezarritako epe eta baldintzetan.

2. ATALA.Programan sartzeari dagokiona

15. artikulua.Programan sartzeari dagokiona

15.1.Programa egindako balioespina kontuan hartuta esleitu da eta elkarrekin bizi behar duten pertsonak ahalik eta ondoen egokituz, beren ezaugarri pertsonalen arabera.

15.2.Programa Alkatetzak zerrendan sartzeko eskaera onartzen duen ebazpen berean esleitu da edo organo horren ondorengo ebazpen batean, eskaera zehatz horri erantzuten dion ikasle interesatu bat baldin bada. Eskaera onartua izateko aurrez azaldu diren betebeharrak guztiak bete beharko dira, eta legeak exijitutako epe eta betebeharrak guztiak bete jakinarazi beharko da.

15.3.Programan txertatu aurretik, edo gehienez egun berean, Udalak erabiltzaileari jakinaraziko dio programaren funtzionamendua arautzen duten arauak zein diren, pertsona horrek ulertzeko moduko hizkera erabiliz. Programan sartzeari dagokion arau horiek onartzea ekarriko du, eta onarpen hori dagokion dokumentua izenpetuta gauzatuko da.

15.4.Interesatuak programa onartzen badu, baja emango zaio ostatu baliabide eta zerbitzuetako eskatzaileen gainerako zerrendetan. Orobat, esleitutako ikaslea onartzen ez badu, baja emango zaio programa honi dagokion eskatzaile zerrendan.

4. KAPITULUA.PROGRAMAREN EGOKITZAPENA ETA SEGIMENDUA

16. artikulua.Segimendua eta ebaluazioa

16.1.Gizarte Laneko teknikariek etengabeko segimendua egingo dute, programa adineko erabiltzaileen beharretara egokitzeko; horretarako, beharrezkoak diren aldaketa

guztiak proposatuko dituzte, eta, erabiltzaileekin batera, proposatutako helburuak zenbateraino betetzen diren ebaluatuko dute.

16.2. Lehen harremana programa hasi eta hamabost egunera gauzatuko da, erabiltzaileak programarekin gustura dauden jakiteko.

16.3. Aldian-aldean ebaluazioak egin ahal izango dira, erabiltzaileak eskatuta edo programako protokolo eta/edo kontratuetan ezarritako moduan.

17. artikulua. Egokitzeko aldia.

17.1. Programan sartu eta ondorengo hiru hiletan zehar, pertsonak egokitze pertsonaleko aldean daudela ulertuko da, elkarbizitza egokia bermatzen duten gutxieneko elkarbizitza ohituretara moldatzeko. Erabiltzailearen erreferentziako Gizarte Laneko teknikaria eta ikaslea une oro egongo dira harremanetan adinekoarekin, sortzen joaten diren arazoez hitz egiteko, eta zerbitzuetara ongi egokitzeko beharrezkoak diren irtenbideak bilatuko dira.

17.2. Erabiltzaileekin batera irtenbideak aukeratu eta probatu ondoren, haiek programari egokitzeko zailtasunak daudela ikusten bada, edo programak adinekoaren behar guztiak betetzen ez dituela balioesten bada, teknikariak txosten bat egingo du horren berri emateko. Oinarrizko gizarte zerbitzuek Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren eskura jarriko dute txosten hori, hark egoera balioetsi eta proposamen bat egin dezan.

17.3. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak eginiko proposamena erabiltzaileari igorriko zaio, eta horrek 15 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

17.4. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena igorriko dio alkateari, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du. Pertsona programatik irtetea erabakitzen bada, alternatiba bat proposatuko da, horrelakorik bada behintzat.

5. KAPITULUA. PROGRAMA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

18. artikulua. Programa etetea eta iraungitzea.

18.1. Programa aldi baterako etetea.

Ikasleak eta adinekoak elkarrekin bizitzeko programaren berezko ezaugarriak direla medio, ez da aurreikusten programa hau eten daitekeenik.

18.2. Programa iraungitzea.

Dagokion prozedura bideratu ondoren, programa honako arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

—Ostatu akordioa deuseztatu egin delako.

—Osasun zentroetan etengabeko laguntza eskatzen duen osasun egoera agertu delako eta/edo elkarbizitzari kalterik eragin diezaiokeen desoreka eta/edo gaixotasun infekzio-kutsakorren bat jasaten duelako.

—Ostatu akordioan adostutako oinarritzko betebeharrak ez direlako bete, aldeei entzun ondoren.

—Ikasle izateari utzi diolako.

—Adinekoa etxean hilabete baino denbora gehiagoz ez delako agertu.

—Erabiltzaileak programari uko egin diolako.

—Heriotzagatik.

—Adinekoa beste baliabide edo programa batean sartu delako.

—Programan emateko kontuan hartu diren datuak faltsuak zirelako edo datuak ezkutatu zituelako.

—Adinekoak programan sartzeko exijitutako betebeharratariko bat galdu duelako.

—Programaren segimendua egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez duelako eskaini.

—Bizilagunari fisikoki edo psikologikoki eraso diolako.

—Ikaslearentzako laguntzaren hiru ordainagiri ordaintzeko garaian justifikatu gabe berandutu delako.

—Arautegi honetan erabiltzaileentzako aurreikusi diren betebeharrak behin eta berriz ez dituelako bete.

Dagokion txostena bideratu eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren proposamenari jarraiki, programako bajak erabakiko dira, Alkatetzaren ebazpenaren bidez eta interesatuari entzun ondoren. Ebazpen hori adinekoari eta ikasleari jakinaraziko zaie, legean aurreikusitako epe eta betebeharrak betez.

19. artikulua.Prestakuntza.

Ezinbestekoa da erabiltzaileei, adineko eta ikasleei, oinarritzko prestakuntza eskaintzea, elkarrekiko errealitateekiko sensibilizatu eta hurbiltzeko. Kasu bakoitzean metodologia eta eduki zehatzak zehaztuko dira, eta horretarako kontuan hartuko dira erabiltzaileen ekarpen eta kezka guztiak; hain zuzen ere, haiekin aldian-aldian izaten diren topaketa/trukeetan eta ebaluazioetan antzematen direnak.

6. KAPITULUA.PROGRAMAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

20. artikulua.Laguntza ekonomikoa.

20.1. Urtean behin alkatearen ebazpen batek zehaztuko du zenbateko dirulaguntza jasoko duen programaren onuradun den adinekoa. Irabazien eta ondarearen arabera, laguntzak ikaslea etxean izateak sor ditzakeen lojamendu gastuak (elektrizitatea, ura, gasa eta abar) ordaintzeko kantitate bat ere eduki dezake. Dirulaguntzak horrelako kantitaterik jaso behar duen erabakitzerakoan araudiko II. eranskinean definituriko irizpideak (Irizpideak zehazturik daude 1. puntuko a eta b epigrafeetan.) erabiliko dira. Gainerako dirulaguntza, adinekoak beti ere jasoko duena, ekonomi balioespenaren mendean ez dagoenez gero, ikasleari eman beharko dio nagusi onuradunak ikasketa laguntza gisara.

20.2. Ordaindu beharra sortuko da lojatzea gauzatzen den unetik beretik. Udalak dirulaguntza hilean behin ordainduko du, adineko onuradunaren kontu korrontera transferentzia eginda. Lojatutako hilabetearen azken egunean ordainduko da eta, lehen ordaina egin ahal izateko, adinekoak eta ikasleak onartutako konpromisoen akordioaren ale bat aurkeztu beharko da. Ordainketa ostatua hasten den unetik egin behar da. Behar denean, udaleko laguntza hilean behin ordainduko da, zenbatekoa adineko erabiltzailearen kontu korrontera transferituz.

20.3. Adinekoa ospitaleratzten bada, ikasleak eta, behar denean, adinekoak jaso beharreko zenbateko osoei eutsiko zaie. Adinekoa bestelako arrazoiengatik agertzen ez bada, ikaslearen ostatu gastuengatik jaso beharreko zenbatekoa bakarrik ordainduko zaio, aurrez laguntza hori onartu bazaio. Nolanahi ere, ez agertze horrek ezin izango du hilabetea gainditu.

20.4. Ahalmen ekonomikoari buruzko datu faltsuak emateak edo datuak ezkutatzek eskatera artxibatzea edo programa iraungitzea eragingo du, hori jada eman bada, ekintza horietatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunei utzi gabe. Aurretik udalak dirulaguntzarik eman badu, dirulaguntzak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, laguntzak emateari buruzko udal ordenantzan araututakoaren arabera.

20.5. Programaren erabiltzaileek eta, behar denean, beren lege ordezkariak derrigor jakinarazi behar dizkiote organo kudeatzaileari famili unitatearen errentan, ondarean edo pertsona kopuruan gerta litezkeen diren aldaketa guztiak, baita laguntza ezartzeko garaian eraginik izan dezaketen bestelako gorabeherak ere, horiek gertatu eta ondorengo 30 egunetan.

Xedapen Indargabetzailea.

Maila berdineko edo txikiagoko arau guztiak indargabetzen dira, Arautegi honetan ezarritakoaren kontrakoa esan edo aurka egiten duten puntuetan.

Azken Xedapen Lehena.

Alkateari eskubidea ematen zaio Arautegi hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren arau guztiak eman ditzan.

Azken Xedapen Bigarrena.

Arautegi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

I. ERANSKINA

SARRERA BAREMOA

Sarrera baremoak, batetik, eskatzaile zerrendak antolatzeko irizpideak ezartzen ditu; eta bestetik, programan sartzeko lehentasunak ezartzen ditu, gizarte diagnostikoaren arabera.

BAREMOAREN EGITURA

Neurriak Puntuazio tarteak

Baliabide mota Ikasleak

Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko lagun-du beharra 25

Elkarbizitzaren eta gizarte laguntzaren egoera 45

Egoera ekonomikoa 30

Guztira 100

I. Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko lagundu beharra.

Atal honetan balioetsiko da adinekoak laguntza beharra duen, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta jarduera instrumentalak burutzeko, batetik, bere autonomia mailari eutsi eta sustatzeko, eta, bestetik, bere ingurunean bizi kalitate egokiarekin jarrai dezan errazteko.

II. Elkarbizitzako eta gizarte laguntzako egoera.

Pertsonak bere beharrak betetzeko zenbaterainoko laguntza duen jakin nahi da, aldagai hauen arabera:

—Elkarbizitza egoera: Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Adineko beste batzuekin (senide edo lagunak) edo beste senide edo lagun batzuekin bizi den.

—Laguntza mota bakoitzerako, sare informala (senide eta/edo lagunak) dagoen, eta izatekotan, horretara noiz jo daitekeen.

—Sare horrek zein laguntza mota ematen dituen eta laguntza horren ondorio positibo edo negatiboak:

- * Emoziozkoa eta/edo afektukoa: Sentimendu pertsonalak eta gizartean parte hartzea.
- * Laguntza informala eta/edo informazio laguntza: Aholkua, orientazioa eta arazoak konpontzea.
- * Uki daitekeena: Laguntza materiala eta/edo laguntza fisikoa.

III. Egoera ekonomikoa.

Adinekoak, ostatu plaza bat eskuratzeko, bere egoera ekonomikoa balioets diezaioten ala ez erabaki dezake. Bere egoera ekonomikoa aintzat ez hartzea erabakitzen badu, Administrazioari jakinaraziko dio, eta 0 puntu emango zaizkio.

Egoera ekonomikoa balioesteko kontuan hartuko dira adinekoak eskura dituen ondasunek zenbateko balioa duten eta ondasun horiek bere beharrari erantzuteko edo egoera hori arintzeko zenbaterainoko eragina duten.

III.1. Diru sarrerak.

—Higigarrien kapitaleko urteko etekin garbia.

—Higiezinen kapitaleko urteko etekin garbia.

—Urteko diru sarrera korrante garbiak.

III.2. Ondarea.

Ondarea erabiltzailearen higigarrien eta higiezinen kapital osoak osatzen du. Eskaera egin aurretiko lau urteak bakarrik hartzen dira aintzat.

—Higigarrien kapitala honakoek osatzen dute: Kontu korronteko eta eperako gordailuek; inbertsio fondo eta pentsio fondoek; higigarrien baloreek; bizi aseguru eta aldi baterako edo biziarteko errentek; eta arteko eta antigoaleko gauzek, bitxiak eta balio handiko bestelako gauzek.

—Higiezinen kapitala landa eta hiri ondasunek osatzen dute. Xede horretarako ohiko etxebizitza ez da aintzat hartuko, baldin eta bertan ezkonlagunak eta/edo guraso aginte luzatu edo birgaituaren mendean egonik, judizialki ezgaituak diren adinez nagusiek bizi behar badute.

<i>Diru Sarrerak</i>		<i>Ondare (1)</i>	
<i>Ingresos</i>		<i>Patrimonio (2)</i>	
LAGSen %300 baino gehiago Mas del 300% del S.M.I.	0	84.141,71 baino gehiago Más 84.141,71	0
LAGSen %286,67ra artekoak Hasta el 286,67% del S.M.I.	1	78.932,94 artekoa Hasta 78.932,94	1
LAGSen %273,34ra artekoak Hasta el 273,34% del D.M.I.	2	73.724,17 artekoa Hasta 73.724,17	2
LAGSen %260,01era artekoak Hasta el 260,01% del S.M.I.	3	68.515,40 artekoa Hasta 68.515,40	3
LAGSen %246,68ra artekoak Hasta el 246,68% del S.M.I.	4	63.306,63 artekoa Hasta 63.306,63	4
LAGSen %233,35era artekoak Hasta el 233,35% del S.M.I.	5	58.097,86 artekoa Hasta 58.097,86	5
LAGSen %220,02ra artekoak Hasta el 220,02% del S.M.I.	6	52.889,09 artekoa Hasta 52.889,09	6
LAGSen %206,69ra artekoak Hasta el 206,69% del S.M.I.	7	47.680,32 artekoa Hasta 47.680,32	7
LAGSen %193,36ra artekoak Hasta el 193,36 & del S.M.I.	8	42.471,55 artekoa Hasta 42.471,55	8
LAGSen %180,03ra artekoak Hasta el 180,03% del S.M.I.	9	37.262,78 artekoa Hasta 37.262,78	9

LAGSen % 166,07ra artekoak Hasta el 166,07% del S.M.I.	10	32.054,01 artekoa Hasta 32.054,01	10
LAGSen % 153,37ra artekoak Hasta el 153,37% del S.M.I.	11	26.845,24 artekoa Hasta 26.845,24	11
LAGSen % 140,04ra artekoak Hasta el 140,04% del S.M.I.	12	21.636,47 artekoa Hasta 21.636,47	12
LAGSen % 126,71ra artekoak Hasta el 126,71% del S.M.I.	13	16.427,70 artekoa Hasta 16.427,70	13
LAGSen % 113,38ra artekoak Hasta el 113,38% del S.M.I.	14	11.218,93 artekoa Hasta 11.218,93	14
LAGSen % 100era artekoak Hasta el 100% del S.M.I.	15	6.010,13 artekoa Hasta 6.010,13	15

(1) Kantitate horiek urtean behin eguneratuko dira, nazio mailako KPIren arabera.

(2) Dichas cantidades se irán actualizando anualmente en función del IPC nacional.

		PERTSONA BAKOITZEKO DIRU SARRERAK INGRESOS PER CÁPITA																
		15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1	0	
K A P I T A L A	C	15	30	29	28	27	26	25	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15
		14	29	28	27	26	25	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14
		13	28	27	26	25	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13
	A	12	27	26	25	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12
		11	26	25	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11
	P	10	25	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10
		9	24	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9
	I	8	23	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8
		7	22	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7
	T	6	21	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6
		5	20	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5
	A	4	19	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5	4
		3	18	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5	4	3
	L	2	17	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5	4	3	2
		1	16	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1
A	0	15	14	13	12	11	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1	0	

II. ERANSKINA

ADINEKOAK ETA IKASLEAK ELKARREKIN BIZITZEKO PROGRAMAREN LAGUNTZA
EKONOMIKOA

1. Udalak aldian-aldian lojamendu gastuetarako (elektrizitatea, ura, gasa eta abar) ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztuko da onuradunaren hileko sarrera garbiak eta ondarea kontuan izanda.

a) Adinekoen sarrerak lanbide arteko gutxienezko lansariaren halako bi baino gutxiago badira eta ondaretan 30.050,61 € baino gutxiago badauka (ohiko etxebizitza (Ohiko etxebizitza, jabea bera izanik, bertan bizi den etxebizitza da.) barne ez dela), urtean behin Alkatearen ebazpenak xedatutako kantitatea jasoko dute. Jasotzen dutenaren %50 ikasleari emango diote ikas dirulaguntza moduan.

b) Adinekoen sarrerak lanbide arteko gutxienezko lansariaren halako bi baino gehiago badira eta ondaretan 30.050,61 € baino gehiago badauka (ohiko etxebizitza barne ez dela), urtean behin Alkatearen ebazpenak xedatutako kantitatearen %50 jasoko dute eta kantitate hori osorik eman beharko diote ikasleari, ikas dirulaguntza moduan.